

## BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

### 5012

*EBAZPENA, 2019ko urriaren 21ekoa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez lankidetzak-erakundeei laguntzak ematen baitzaizkie, 2019. urterako genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketarako prozesuak sustatzeko.*

Martxoaren 27ko 40/2018 Dekretuak (2018ko apirilaren 9ko EHAA, 6. zk.) lankidetzak-erakundeei eman beharreko laguntzak arautzen ditu, erakundeetan genero-berdintasunaren aldeko erakunde-aldaketako prozesuak sustatzeko.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2019ko ekainaren 12ko Ebazpenaren bidez (ekainaren 19ko EHAA, 115. zk.), lankidetzak-erakundeei laguntzak emateko deialdia egin zen, erakundeetan genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketaren prozesuak 2019. urtean sustatzeko.

Ikusi da deialdia egiteko Ebazpenaren 5. artikulua bidez hartarako izendatutako Balorazio Batzordeak laguntzak emateko egindako proposamena. Egin ditu Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Koordinatzeko Zerbitzu Teknikoak laguntza-eskabideen balorazioa eta azterketa teknikoa. Horrenbestez, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2019ko ekainaren 12ko Ebazpenaren bidez deitutako laguntzak ematea. Laguntza horiek ebazpen honen I. eranskinean jasotako erakundeei emango zaizkie, eranskin horretan aipatzen den kopuruan eta eran.

Bigarrena.– Baztertzea II. eranskinean ageri diren erakundeei aurkeztutako eskaerak, eranskin adierazten diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.– Atzera egindakotzat jotzea III. eranskinean ageri diren erakundeei aurkeztutako eskaerak, eranskin adierazten diren arrazoiengatik.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, jende guztia jakinaren gainean egon dadin.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu zenetik hiru hilabete igaro eta ebazpenik ez bada eman, ezetsi egin dela ulertu ahal izango da, eta administrazioarekiko auzietarako bidea irekita egongo da.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 21a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,  
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.

2019ko urriaren 30a, asteazkena

I. ERANSKINA  
DIRUZ LAGUNDUTAKO ESKABIDEAK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Helburua	Puntuak	Diru-laguntza (euro)
GBA-2019BA/0003	Fundación UNICEF Comité Español. Delegación en la CAE	Genero-Diagnostiko Parte hartzailea eta berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa	68,25	36.699,30
GBA-2019BA/0005	Asociación KIDENDA para la solidaridad con los pueblos del sur	Genero-Diagnostiko Parte hartzailea eta berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa	62,25	34.924,61
GBA-2019BA/0006	Garabide Kultur Elkarte	Genero-Diagnostiko Parte hartzailea eta berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa	60,00	29.801,98
GBA-2019BA/0001	Asociación Setem Hego Haizea	Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoaren Implementazioa eta haren Ebaluazioa	75,75	39.893,40
GBA-2019BA/0002	Mugarik Gabe, Organización No Gubernamental de Cooperación al Desarrollo	Genero berdintasunaren aldeko Ekintza Planaren Ebaluazioa	85,31	7.000,00

2019ko urriaren 30a, asteazkena

II. ERANSKINA  
BAZTERTUTAKO ESKAERAK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Baztertzeko arrazoia
GBA-2019BA/0004	Cruz Roja Española	100 puntutik 50eko puntuazioa ez gainditzeagatik, 10.artikuluak jasotzen duen bezala
GBA-2019BA/0008	SOS Racismo Gipuzkoa / Gipuzkoako SOS Arrazakeria	100 puntutik 50eko puntuazioa ez gainditzeagatik, 10.artikuluak jasotzen duen bezala
GBA-2019BA/0009	Asociación Africanista Manuel Iradier	100 puntutik 50eko puntuazioa ez gainditzeagatik, 10.artikuluak jasotzen duen bezala

2019ko urriaren 30a, asteazkena

## III. ERANSKINA

## UKO EGINDAKO ESKAERAK

Espedientea	Erakunde eskatzailea
GBA-2019BA/0007	Emaus Fundación Social